

BiAD 2019 PROIEKTUAK AURKEZTEKO GIDA



Bilbao

1. SARRERA
 2. HELBURUA
 3. PROIEKTUEN AURKEZPENA
 4. PARTE-HARTZAILEEN BETEKIZUNAK
 5. PROIEKTUEN BETEKIZUNAK
 6. PROPOSAMENAK HAUTATZEA ETA ONDORENGO IZAPIDEAK
 7. PARTE-HARTZAILEEN BETEBEHARRAK
 8. DATU PERTSONALEN BABESERAKO KLAUSULA
- ERANSKINA I: AURREIKUSITAKO EGUTEGIA
- ERANSKINA II: GALDERAK

1. SARRERA

Bilbao Art District (BiAD) Bilbao Ekintzak (Bilboko Udalak) sustatutako ekimen publiko-pribatua bat da, eta helburu du hiriaren ehun artistiko eta kulturalak garatzen dituzten jardueri laguntzea eta haien balioa nabarmentzea, proiektzio-elementu estrategiko gisa hiriaren garapen eta etorkizunerako.

BiAD 2019 edizioaren helburu nagusia izango da ikusizko arteek duten balioa aldarrikatzea (ekonomikoa, soziala, kulturala...), hausnartzea eta indartzea. Elkarri lotutako krisialdiak dituen bilakaera-prozesu baten barruan dagoen aldetik, BiAD 2019 ekimenak proposatu nahi du balioez jabetzea, hirian partekatutako bizipenen espazioak sortzeko eta esperimentazioa, irudimena eta ikerketa sustatu eta bultzatzeko indar sortzaile emankor eta berritzaile gisa.

Bilbo balioz jositako hiri bat da. Ikusizko arteek beti izan dira erabakigarriak krisialdietan; izan ere, sentsibilitate berri bat aurreratu dute, eta azkenean esparru guztietara, bai sozialetara, bai ekonomikoetara, eramaten den berrikuntza esperimentalaren zeregina bete du. Hortaz, ez dira kultura-balio huts bat, garapen osoa lortzeko eragile ere badira.

Ekonomia eta kultura ez dira aintzat hartu behar esfera autonomo eta itxiak izango balira bezala. Arte-sormena kultura-ondarea baino askoz ere gehiago da: irudikatze eta geure burua irudikatze modua da, komunikatzeko zein adierazteko baliabide bat, bai eta pentsamenduan, norberaren garapenean nahiz taldearenean eta aberastasunen sorreran zuzenean eragiten duen ezagutza-modu espezifiko ere.

Hain zuzen ere, Bilbao Art District 2019 delakoaren aurtengo edizioan, askotariko dimentsio horretan arteak duen balioa esplizitatu eta sakondu nahi da.

2. HELBURUA

Arte-arduradun taldeak, Lekutan izenekoak, Proiektuak Aurkezteko Gida hau egin du, arte plastikoetatik etortzen diren zenbait arte-proiektu hautatzeko BiAD 2019 ekimenean proposatutako lan-ildoarekin bat etorritz.

Hautatutako proposamenek hiru norabide hartuko dituzte: ekoizpena, bitartekaritza eta sustapen ekonomikoa.

Eskuragarri dagoen aurrekontu osoaren zenbatekoa 25.000 eurokoa da. Xedea da hautatzen diren proiektuetako alderdiren bat ikusaraztea maiatzeko BiAD 2019 programan.

Sortzaile interesdunek proposamenak nola aurkeztu ahal dituzten jakiteko argitaratu da proiektuak aurkezteko gida.

3. PROIEKTUEN AURKEZPENA

Proposamenak aurkezteko, webgunean horretarako gaituko den inprimakia bete beharko da: www.bilbaoartdistrict.com; eta helbide elektronikoa honetara bidali: bilbaoartdistrict@bilbaoekintza.bilbao.eus

4. PARTE-HARTZAILEEN BETEKIZUNAK

Proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte, bai pertsona fisikoek, bai pertsona juridikoek, baldin eta arte-sormenaren esparrukoak badira. Parte-hartzaileek, eskaera egiterako unean, honako betekizun hauek bete beharko dituzte:

- Parte-hartzaileek egiteko gaitasun osoa eduki behar dute.
- Ez dira legean jasotako kontratazio-debeku batean ere sartuta egongo.
- Administrazioekin eta Gizarte Segurantzarekin zerga-betebeharrak egunean eduki behar dituzte.
- Proiektua garatzean sor daitezkeen arriskuak estaltzeko beharrezkoak diren erantzukizun zibileko aseguruak eduki.

Proposamen bakarra aurkeztu ahal izango da, bai banakakoa, bai taldekoa. Parte-hartzailea kolektibo bat bada, ordezkari bat izendatuko da.

Baztertuta geratuko dira administrazioak, sozietate publikoak eta horien menpeko edo haiei lotutako erakundeak.

Prozesuan parte hartzeak berekin dakar Jabetza Intelektualari buruzko Legea betetzea, baita ere jarraibide hauek oso-osorik onartzea eta sustatzaileek edozein zalantza argitzeko edo zerikusia duten kontuei buruzko interpretazio loteslea egiteko. Bilbao Ekintza salbuetsita egongo da erantzukizunetik, hirugarrenei urratu dakizkiekeen eskubideei dagokienez.

5. PROIEKTUEN BETEKIZUNAK

Arte-proiektu bat aurkeztu beharko da, baina BiAD 2019ren lan-ildoetara jarraikiz. Gainera, honako hiru ildoetako batean sartu beharko dira: ekoizpena, bitartekaritza eta sustapen ekonomikoa.

Honako proposamen hauek aurkeztu ahal izango dira:

1. 1.000 euroraino (zergak kanpo)
2. 2.000 euroraino (zergak kanpo)
3. 3.000 euroraino (zergak kanpo)
4. 4.000 euroraino (zergak kanpo)

Zehaztu egin beharko da proiektu bakoitza gehieneko zein zenbatekogatik aurkeztuko den. Parte-hartzaileek proposamen bakarra aurkeztu ahal izango dute, bai banaka, bai taldeka.

Proiektuaren aurrekontu osoaren kostua handiagoa izan ahal da, baina Bilbao Ekintzak, gehienez ere, 4.000 euroko kopurua emango du (zergak kanpo).

Sustapen ekonomikoari buruzko proiektuen kasuetan, honako ekimen hauek jasoko dira, besteak beste: langileak kontratatzea, prestakuntza espezializatua, nazioartekotzea, talentua sustatzea...

Ekoizpen eta bitartekaritzako proiektuak arte bisualen edozein diziplinatan garatu ahal izango dira: arte plastikoak, ikus-entzumena, performancea, hiriko esku-hartzea, soinu-arteak, teknologia berriak...

Proiektu guztiek Bilboko arte-sektorean eta, oro har, hiri osoan nolabaiteko eragina izan beharko dute.

6. PROPOSAMENAK HAUTATZEA ETA ONDORENGO IZAPIDEAK

Proiektua gauzatzeko espazioa planteatzerakoan, bideragarria dela hartu beharko da kontuan (tamaina, zirkulazioa, segurtasuna, bolumena, lekuak, kontratazio-kostuak, egokitzea eta abar). BiADen eta proiektua zuzentzen duen pertsonaren artean kudeatuko dira espazioak.

Inprimakian aurreikusitako kostuak adierazi beharko dira, proposamena diseinatzeko eta gauzatzeko beharrezkoak diren kontzeptu ezberdinen arabera banakatuta.

Proiektuari buruzko dokumentazioa (testua, zirriborroak, planoak, simulazioa, marrazkia eta abar) eranskin gisa aurkeztuko da, eta ez ditu 10 orrialde baino gehiago izango. Fitxategia PDF formatuan egon beharko da, eta gehienez ere 10 MB izango ditu.

BiAD 2019ren kudeatzaile-taldeak proiektuan aldaketak iradoki ahal izango ditu bideragarriagoa izan dadin. Edonola ere, egokitzapenak proiektuaren arduradunarekin adostuko dira aldez aurretik.

Ekintzak legez eska daitezkeen betekizun guztiak beteko ditu, eta ezin izango da Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean xedatutakoa urratzen duten edukirik gehitu, ez eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aurkakorik ere, baldin eta zuzenean edo zeharka xenofobia, bereizkeria edo edozein motatako indarkeria eragin badezakete edo legearen, jardunbide egokien edo ordena publikoaren aurka egiten badute.

BiADek epaimahaia izango den talde bat osatuko du, eta taldeak aurkeztutako proposamenak aztertuko ditu. Taldean artearen sektoreari lotutako ospe handiko eragileak bilduko dira BiAD 2019 proiektuko arte-arduradunen taldearekin lankidetzan.

BiADek dokumentazio osagarria aurkezteko eskatu ahal du.

Hautatutako proiektuen ordezkariak martxoaren 15etik aurrera jakinaraziko zaie aurretiazko hautaketa.

Azken hautaketa martxoaren 25a baino lehen jarriko da jendaurrean.

Hautatutako proiektuak (azken kopurua hautaketa- organoak erabakiko du) Bilbao Ekintzako Zuzendaritzari aurkeztuko zaizkio behin betiko onets ditzan. Onetsi ostean, lankidetzak-hitzarmen bat sinatuko da, non onartutako proposamenaren ezaugarriak, behin betiko kopurua eta ordaintzeko baldintzak jasoko diren. Kontratazio bakoitza ez da inolaz ere 4.000,00 euro baino handiagoa izango (zergak barne).

Ordaintzeko prozedura fakturazio elektronikoa izango da, Bilbao Ekintzal EPELek ezarritako terminoen arabera, eta honela egin daiteke:

-Faktura bakarra proiektua amaitzen denean.

-Faktura bat proiektua hautatzen den unean (kopuru osoaren % 70) eta beste faktura bat proiektua amaitzen denean (gainerako % 30).

Proiektuaren arduradunak hautatuko du nahiago duen fakturazio-modua.

7. PARTE-HARTZAILEEN BETEBEHARRAK

Hautatzen diren proiektuetako parte-hartzaileek honako konpromiso hauek hartuko dituzte beren gain:

-Ardura hartzea hautatutako proposamena adostutako datetan egiteko, eta proiektuak hala behar izanez gero, muntatzeko eta desmuntatzeko lanaz arduratzea.

-Bilbao Art District-i baimena ematea hautatutako lanak ekimena ezagutarazteko egokitzat jotzen dituen komunikabideetan aurkezteko.

-Hautatzen diren proiektuetako arduradunek konpromisoa hartuko dute zabaltzeko beharrezkoak diren informazio eta materialak helarazteko.

-Erakusketa publikoetan edo edozein motatako argitalpenetan proiektua aurkeztean sortzen den edozein dokumentaziotan BiAD 2019k emandako logotipoa agertu beharko da.

-Beste norbait kontratatzen bada edo azpikontratazioak egiten badira, indarrean dagoen legearen arabera egingo da ordainsariei, kontratazioei eta lan-arriskuen prebentzioari dagokionez.

-Proiektua amaitzerakoan justifikatzeko memoria egitea, bai teknikoa, bai ekonomikoa.

8. DATU PERTSONALEN BABESERAKO KLAUSULA

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatuakoari jarraikiz, Bilbao Ekintzak jakinarazi nahi du ekimenean parte hartzea jasotzen dokumentazioan adierazten diren datu pertsonalak Bilbao Ekintza EPELren titulartasuneko (K/ Nafarroa 5. 48001 Bilbo) den fitxategi batean sartuko direla, emandako zerbitzuak kudeatzeko asmoz. Fitxategi horrek datuen segurtasun osoa bermatzeko behar diren segurtasun neurriak ditu. Parte-hartzaileak legeak beren-beregi aintzatesten dituen sartzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko (ahazteko eskubidea), mugatzeko, eramateko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahalko ditu, Bilbao Ekintza EPELi idatzizko jakinarazpena bidaliz.

ERANSKINA I: AURREIKUSITAKO EGUTEGIA

Faseak:



Jarraipena: proiektuaren jarraipena egingo da garapena errazteko eta BiADek proposatutako lan-ildoekin bat datorren emaitza lortzeko.

ERANSKINA II: GALDERAK

Galderarik izatekotan idatzi helbide elektroniko honetara:

bilbaoartdistrict@bilbaoekintza.bilbao.eus

